# Behin edo behin

*J.I. Ansorena*
*Hitzak: X. Otaegi*
*Mold: Aitor Amezaga*

**Moderato**




*Behin edo behin pentsatzen baduzu*
*munduan bakarrik zaudela,*
*ez sinistu, ene laguna,*
*ez sinistu, ene adiskide.*

*2.Behin edo behin ikusten baduzu*
*zelaian lore gorria,*
*maite ezazu, ene laguntxo,*
*maite ezazu, ene adiskide.*

*3.Iluntasun eta ezbeharrean*
*itota aurkitzen bazara,*
*ez izutu, ene laguntxo,*
*argia etorriko da ta.*

*4.Itsas gaiztoan dabilen txalupak*
*isurtzen duen kemenaz,*
*jarrai zazu, zeure bidean,*
*jarrai zazu, ene laguna.*

*5.Goizeko printzak nabaritu orduko*
*sentitzen baduzu poza,*
*zabal zazu zeure bihotza,*
*zabaldu egun berrira.*



© 1974 by Jose Ignacio Ansorena, Xabier Otaegi. Boza Edizioagunea